Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1619

AGINDUA, 2011ko otsailaren 21ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Getariako Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa eta idazketa berria onartu eta inskribatzeko dena.

Ikusi da Getariako (Gipuzkoa) Cristóbal Balenciaga Fundazioaren estatutuen aldaketa eta idazketa berria onartu eta inskribatzeko espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko otsailaren 2an fundazioaren estatutu berriak onartzen dituen eskritura inskribatzeko eskabideari eman zitzaion sarrera Justizia eta Herri Administrazio Sailean. Eskrituraren bi kopia baimendu eta kopia soil bat aurkeztu dira: Gasteizko notario Manuel María Rueda Díaz de Rábagoren aurrean 2011ko urtarrilaren 14an Cristóbal Balenciaga Fundazioaren izenean eta haren kontura María Blanca Urgell Lázarok egiletsitako eskritura publikoa (protokolo-zenbakia: 89). Titulu publiko horri erantsi zaio Fundazioaren estatutu berriak onartzeko, 2010eko irailaren 3an hartutako erabakiaren egiaztagiria, Fundazioaren Patronatuko idazkari Sara Pagola Aizpirik, María Blanca Urgell Lázaro presidentearen oniritziarekin 2010eko azaroaren 8an Getarian egindakoa.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko zerbitzu teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 36.3 eta 40. artikuluetan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko, Lehendakari-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1619

ORDEN de 21 de febrero de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe la modificación y nueva redacción de los estatutos fundacionales de «Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioa», de Getaria (Gipuzkoa).

Visto el expediente de la denominada «Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioa», de Getaria (Gipuzkoa), de aprobación e inscripción de la modificación y nueva redacción de sus Estatutos Fundacionales, atendiendo a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Que con fecha 2 de febrero de 2011 tiene entrada en el Departamento de Justicia y Administración Pública solicitud de inscripción de la escritura de la que se presentan dos copias autorizadas y una simple: escritura pública otorgada por doña María Blanca Urgell Lázaro, en nombre y por cuenta de la «Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioa», ante el notario de Vitoria-Gasteiz, D. Manuel María Rueda Díaz de Rábago el día 14 de enero de 2011, bajo su número de protocolo 89. Dicho título público incorpora certificación expedida en Getaria (Gipuzkoa) el día 8 de noviembre de 2010 por doña Sara Pagola Aizpiri en su calidad de Secretaria del Patronato de la Fundación, con el visto bueno de la Presidente, doña María Blanca Urgell Lázaro, del acuerdo adoptado el día 3 de septiembre de 2010, de aprobación de los nuevos Estatutos de la Fundación.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, que a su vista han elevado Propuesta de Resolución, atendiendo a los siguientes.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del presente expediente de modificación estatutaria sobre la base de los artículos 36.3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, y 4 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco; el artículo 9.1 e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administra-

ak maiatzaren 8an eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) paragrafoan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatutako artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Getariako (Gipuzkoa) Cristóbal Balenciaga Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa eta idazketa berria onartzea.

Bigarrena.– Aldaketa hori eta idazketa berria Getariako (Gipuzkoa) Cristóbal Balenciaga Fundazioari Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan irekitako erregistro-orrian inskribatzea, Gasteizko notario Manuel María Rueda Díaz de Rábagok (protokolo-zenbakia: 89) 2011ko urtarrilaren 14an baimendutako eskritura publikoarekin bat etorriz. Cristóbal Balenciaga Fundazioaren estatutuak titulu publiko horretan azaldu bezala geratzen dira idatzita.

Hirugarrena.– Fundazioari agindu honen kopia bidaltzea.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 21a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ción de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y el artículo 4.1 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; ajustándose la modificación estatutaria practicada a las previsiones legales y reglamentarias que devienen de aplicación.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación y nueva redacción de los Estatutos Fundacionales de Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioa, de Getaria (Gipuzkoa).

Segundo.– Inscribir en la hoja registral abierta a «Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioa» en el Registro de Fundaciones del País Vasco dicha modificación y nueva redacción estatutaria, de conformidad con la escritura pública autorizada por el notario de Vitoria-Gasteiz, D. Manuel María Rueda Díaz de Rábago el día 14 de enero de 2011, bajo su número de protocolo 89. Los Estatutos Fundacionales de «Fundación Cristóbal Balenciaga-Cristóbal Balenciaga Fundazioa» quedan redactados en los términos que figuran en dicho título público.

Tercero.– Remitir copia de la presente Orden a la mencionada Fundación.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá imponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.